
argitalpena



Arantzazuko frantziskotarren 500. urteurrena 'Kontzejupetik' aldizkarian

Berezia da aurtengo urtea Arantzazu eta inguruetako jendearentzat, bertako frantziskotarrek 500 urte bete baitituzte, eta Oñatiko *Kontxejupetik* aldizkariak hori dela eta egingo diren ekitaldien zerrenda argitaratu du. Horretaz gain, Urbiako artzain bordetan otorduak emateko dauden zailtasunei buruzko erreportaia ere aurki daiteke.

Argitaratzailea: **Oñatiko Udala**

aholkua

Arazoak kandelekin

Etxe askotan erabiltzen dira kandelak argia joaten denerako edo giro erromantikoagoa sortzeko. Baina horretarako kandela egokiak aurkitzea zaila izaten da gehienetan. Baina ez zaila arazo hori konpontzea. Kandela lodiegia denean, nahikoa da ur irakinetan sartzea segundo gutxi batzuetan. Finegiak direnean, berriz, beste kandela baten argizaria urtu, eta hura erabiliz bere lekuan itsatsiko dugu.


SAURABH DAS

erakusketa

Murua eskulturgilearen lanak Donostian (Kutxaren erakusketa aretoan irailaren 30a arte)


EGUNKARIA

'Hankazgora', Muruaren eskulturetako bat, egurrez egindako gizon bat.

Tomas Murua eskultorearen azken lanak Donostian

Murua eskultore ezagunaren azken lanak Donostiako Kutxako aretoan daude ikusgai, irailaren amaiera arte. Bere lanetan zehar denetik aurki daiteke, arrantzaleak, oholetako langileak, baserritarrak, sentsualitate handiko gizonak, eta emakume biluziak, besteak beste. Haiek guztiak egurrean landutako eskultura ikusgarrietan.

musika

ALTSASU. Triki ta ke. Bihar, irailak 13, iluntzean.
ARAIA. Singapore Youth Choir. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, elizan.
BAIONA. Stephan Genz eta Wolfram Rieger. Gaur, gaueko 21:00etan, Bonnat museoan.
BERNEDO. Coral Antiphona. Gaur, arrtsaldeko 20:30ean, elizan.
BILBO. Opera. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, Euskalduna Jauregian, 'Sanson eta Dalila' obrarekin.
ELTZIEGO. Coro Cantares. Gaur, 20:30ean, elizan.
GALDAKAO. Aterkings taldea. Bihar, hilak 13, Alai tabernan, 22:00etan.
GASTEIZ. Coro Men in Blaque. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, Kristo Berpiztua elizan.
Coro Universidad Warmia y Masuria. Gaur, 20:00etan, San Jose elizan.
Coro de Camara Rozhdestvo. Gaur, arratasaldeko 19:30ean, San Pedro elizan.
King's Consort. Gaur, 20:15ean San Pedro elizan.
Grupo Funk Sinatra Rock and Rock. Bihar, hilak 13, arratsaldeko 20:00etan, Jardin de Falerina tabernan.
LEZO. Piano kontzertua. Gaur, 20:30ean, Gurutze Santuaren elizan.
LIZARRA. Labyrinto. Gaur, arratsaldeko 20:00etan, San Miguel elizan.
OION. Grupo vocal sol nascente. Gaur, arratsaldeko 20:30ean, zineman.
ZIATZA. Polifonica Santa Cecilia. Gaur, 20:30ean elizan.

antzerkia

BARAKALDO. Bambulo. Gaur, bihar eta ostiralean, irailak 12, 13 eta 14, gaueko 20:30ean Barakaldo antzokian.
BERMEO. 'Jauja'. Irailaren 16a arte. 20:00etan eta 22:30ean, Nestor Basterretxea aretoan.
BILBO. 'La cena de los idiotas'. Gaur eta bihar, arratsaldeko 20:00etan; ostiralean eta larunbatean, hilak 14 eta 15, 20:00etan eta 23:15ean; eta igandean, irailak 16, arratsaldeko 20:00etan, Arriaga antzokian Paco Miren eskutik.
'Hor dago koxka'. Irailaren 16a arte, Euskalduna Jauregian. Hilaren 13an euskaraz, 20:00etan; eta gaztelaniaz gainontzeko egunetan, 20:00etan, Ttanttakaren eskutik.
DONOSTIA. 'Muerte accidental de un anarquista'. Gaur hasi eta igandea arte, Antzoki zaharrean ikusi ahal izango da, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Larunbatean 23:00etan bigarren emanaldi bat egingo dute Tentazioa taldekoek.
'De viaje'. Bihar, irailak 13, 19:00etan, Intxaurrondoko Justo Elizaran plazan; eta ostiralean, hilak 14, Julio Caro Baroja plazan.

bertsolaritza

AZPEITIA. Leire Ostolaza, Iñigo Manzisidor «Mantxi» eta Imanol Epelde. Ostiralean, irailak 14, bertso afaria Txalintxo elkartean, Urola kostako Bertso-Eskolen elkartearen eskutik.
GARRALDA. Maialen Lujanbio eta Jokin Sorozabal. Ostiralean, hilak 14, bertso afaria Etxebaurrengoan, gaueko 21:30ean.
MENDARO. Amets Arzallus, Arkaitz Estiballes, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Sustrai Kolina. Etzi, hilak 14, jaialdia, gaueko 22:30ean pilotalekuan.

dantza

BIARRITZ. Les Elements. Gaur, gaueko 21:00etan, udal kasinoan, l'Eventail Marie-Genevieve Masse taldearen eskutik.
Imprevisibles. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, eta bihar, irailak 13, 21:00etan, Le Colisee aretoan, Erika 'La Quica' taldearen eskutik.

hitzaldiak

BERGARA. Nola aurreikusi bizkarrezurreko arazoak. Bihar, hilak 13, 19:00etan, kultur etxean.
BIASTERI. 'Los vinos de maceración carbónica en el mercado actual'. Gaur, 20:00etan, Villa Lucia aretoan.
LEZO. Tomas Garbizu. Gaur, arratsaldeko 19:00etan, Lezoko udaletxeko Udalbatza aretoan, Patxi Intxaurrandietaren eskutik. Ondoren, Garbizuren piano musika osoa biltzen duten hiru diskoen aurkezpena, Juan Padrosa piano jole katalanaren eskutik.

ikus-entzunezkoak

BASAURI. 'Gente pez'. Bihar, hilak 13, 20:00etan eta 22:30ean, Social antzokian.
DURANGO. 'SOS Itoitz, European Tour'. Ostiralean, hilak 14, bideo emanaldia arratsaldeko 19:30ean, eta afaldu ostean, diapositiba emanaldia.
GASTEIZ. 'Heat caliente'. Bihar, hilak 13, arratsaldeko 19:45ean, Florida zineetan.

bestelakoak

BUNUZE. Erakusketa eta ibilaldia. Sei artistak laborantzaren inguruan eginiko erakusketa, irailaren 15a arte. Bestalde, egun hori arte ibilaldiak antolatuko dituzte.
DONOSTIA. Trikimailu express. Ostiralean, irailak 14, arratsaldeko 18:00etan, Martin Santos plazan.

erakusketak

ALTSASU. Festetako kartelen erakusketa. Gaur arte, gure Etxean festetako egitarauari buruzko lehiaketan aurkeztutako lan guztien erakusketa.
BARAÑAIN. Betiko ipuinak. Irailaren 27a arte, kultur etxean izango dira ikusgai, betiko ipuinei buruz haurrek egindako marrazkiak.
BERTIZ. Goenaga, Ramirez Escudero, Zumeta. Margo erakusketa Epelde & Mardaras galerian.
BILBO. 'Momentos de Rock & Roll'. J.A. Areta 'Juxe'-ren argazkiak, Muga tabernan, irail amaiera arte.
'La mirada del cíclope'. Xabier Mulet argazkilariaren irudiak ikusi ahal izango dira, urriaren 3a arte, Espacio de los Mundos aretoan.
DONOSTIA. Pekin-Shanghai. Chema Pradoren erakusketa izango da ikusgai urriaren 7a arte.
Ramon Aranzabal margolariaren erakusketa. Irailaren 30a arte ikusi ahal izango da, Kutxaren aretoan, Boulevard, 1ean.
Murua eskultorearen erakusketa. Irailaren 30a arte, Kutxaren erakusketa aretoan. Astelehenetik larunbatera, 18:00etatik 21:00etara, eta igande eta jai egunetan, 11:30etik 13:30era, eta 17:00etatik 21:00etara.
DURANGO. Solsticio solar. Fernando Beorlegui artistaren lana,